

# Zarautzko Frantziskotarren 400.urteurrena

Zarautz, 2010-XII-17



# Frai Baertel sermoilari famatua (Durango 1850-Zarautz 1922)

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis  
Euskaltzain osoa

Durangotik Zarautzera, 2010eko abenduaren 13an.

Frantziskotarren komentu honen 400. urteurrena dela eta XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako euskal predikari entzutetsuenetakoa dakartzet hona, Zarautzera. Badira horretarako zenbait arrazoi: 1. hain zuzen duela 140 urte, 1870eko ekainaren 2an sartu baitzen fraide komentu honetan; 2. aita Mariano Estradaren eskutik hartu zuen fraide abitua, frantziskotarra izan zen, beraz; 3. hemen, Zarauzko komentu honetan hil zen, 1922an; 4. nire familian ezaguna izan zen; 5. bere sermoi historiko bi ezagutu ere egiten ditugu.

Fraide honen izen-deitura eta jatorriaz hara zenbait xehetasun: Daniel Baertel Miota Durangon sortu zen 1850eko apirilaren 9an, aita, Frantzisko Ignazio Baertel Dohisch eta, ama, Patrizia Miota Arrospide. Ume denboran arraro egiten zitzaidan deitura hori, ez baitzen ene belarrietarako ez euskalduna, ez gaztelaua. Orduko agiriak diotenez, Bohemiako erreinukoa, hain zuzen Sonnenberg hirian jaioa, gaur egun Txekiar Errepublikan aurkitzen dena eta, oker ikertu ez badut, hiri horren izena alemanezko exoni-moa izango zen, gaur egungo Ipar Moravia kraj edo probintziako Sumperk hiria txekieraz. Sudetiarra izango zen, seguru asko, gure Frai Danielen aita, germanofonoa nonbait eta ez eslaviar jatorrikoa. XIX. mendearen erdialdean txekiar nazionalismoaren berpizkundearekin batera bohermiar germanofonoen atzerriratzea hasi zela uste dut, gero, 1918an austriar-hungariarrak gerra galdu ondoren, sudetiar familia askok neutral izandako Espainiako erresumarako bidea hartu zuten, Hego Euskal Herrira ere (bartzuk ezagunak: Scheiffler-tarrak, Yanke-tarrak). Bigarren Mundu gerran,

lehendabizi Hitlerrek Bohemia eta Moravia indarrez bereganatu eta bortizki zapaldu zituen eta, jakina da, gero, gerra galdu ondoren, aleman-sude-tiar guztiak herrialde biotatik derrigorrez deserriratu zituztela.

Komentu honetan fraide sartu eta gutxira, Espainiako gobernu agintariak erabaki zuten erlijiosoen sakabanatzea. Ondorioz, aipaturiko Aita Estradak Eibarko Isusi kaleko Kontzezionisten moja komentuko kapilau-etxean egoitza bat irekitzea lortu zuen, eta bertara eraman zuen gure Daniel Baertel. Urte hartako apirilaren 15ean jantzi zuen frantziskotar abitua eta, handik beste urte betera, aita Azurmendiren gidaritzapean egin zuen profesa arrunta eta, 1875ean, Tolosan profesa nagusia. Aita Daniel Baertel 22 urterekin apaiztu zen, berehala sermoilaritzan trebatu zelarik. Idelogikoki oso karlista – geroztik ere bere sorterrria, Durango karlista herria izan da, II. Errepublikako alkate biak ere karlistak izan bai ziren – liberalen arerio amorratua, hainbestearainoko ze Euskal Herritik kanpo bizitzera behartua izan zen, Santander probintziako, Toranzo haraneko, Soto-Iruzko komentuan (hain zuzen, urteak geroago, 1944an komentu berberera destinarazi zuten, Carmo-nako kartzelatik atera ondoren, Aita Lino Akesolo, berau abertzale izateagatik, ordea).

Eliz oratoria izan zen bere lanik garrantzitsuena eta horregatik izan zen hain famatua Euskal Herrian. Hara zer dion hortaz Durangaldeko historian saiatuena den Jon Irazabalek:

1877an Oñatin garizuma predikatzeraz joan zenean jendea harriturik gelditu zela diote «honek, guk orain arte ezagututako sermoilari famatuak gainditu ditu» eta antzerako esaldiak entzuten ei ziren jendearen ahoetan. Ez ziren erratu. Berrogei eta bost urtetan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Aragoi eta Gaztelan zehar bere sermoiak zabaltzen ibili zen. Diote ez zela egon ia pulpiturik Frai Baartelek ez zuenik erabili bere hitzak zabaltzeko. Epe honetan 13.500 sermoi eman zituela esaten dute (Guinnessera eramateko modukoa, recordmana!). Azpimarratzekoak dira Kortezubin emandako sermoia 4.000 pertsonen aurrean edo, Beasainen, 1909 urtean, 10.000 lagun bildu zituen elizkizuna. Bere definizio gisa Frai J. J. de Mk. heriotzaren ematerakoan ARANZAZU aldizkarian hau dio «El cielo le había dotado de excelentes condiciones para el púlpito: voz potente, ex-

presión fácil, pronunciación clara y expédita, enérgico decir, oído fino y delicado, imaginación volcánica, buena presencia, acción expresiva y natural, salud fuerte y robusta, y corazón tierno y devoto...

Nire familian ezaguna izan zela esan dut hasieran eta hala da. Nire aitita Errejiño Lizundiari zenbat aldiz entzun ote nion Aita Baertelen berri, mirespena zion eta bere sermoiak entzutera joaten omen ziren amama eta biak albo herrietara, gaur egun «fansak» zirela esango genuke. Horrez gain nire emaztearen osaba-orde Gregorio Miotari ere gauza bera entzun nion, bere senitartekoa omen zen gainera. Ezagutu ditut hain zuzen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka egiten den ondoko baserrian bizitako Miotatarrak, Gregorioren lehengusuak eta, seguru asko, Aita Daniel Baertel Miotaren senitartekoak, bera eta bere ama durangarrak baitziren. Bidenabar, diodan, behin baino gehiagotan damutu zaidala Gregorio Miota garaitar eta gizon maitagarriari grabazioa ez egitea. Euskaldun hutsa, ia erdararik ez zekiena, pasadizo eta istorio ugariren kontalari aparta, esaldi eta errefrauak kutsadurarik gabeko euskaran parra parra botatzen zituena, Gregoriok ere Aita Baertelen lekukotasunak ere, bereak eta bere familian entzundakoak ere jaso ezaren pena dut.

Jakina da Euskal Akademia honen sorrerak baduela aurrekari garrantzitsu bat, 1886n Durangon ospatu ziren Euskal Jaietan, hain zuzen, zeinetan eratu ziren txapelketa eta sariketen artean, saiokoa irabazi zuen Arístides de Artiñano bilbotarrak «Proyecto de Academia Bascongada» lanarekin<sup>1</sup>. Bada Euskal Jaien barruan meza nagusi bat izan zen Uribarriko Andre Maria basilikan eta sermoilari gure Aita Daniel Baertel. Prediku eder hori ezagutzen dugu, zeren eta hurrengo urtean, Durangon, Egurrolaren moldiztegian argitaratu baitzen, geroztik, beste argitalpen izan ditue-larik, bata, 1919an, Zornotzan eta, bestea, Gerediaga Elkarteko idazkari den Jon Irazabalen esku, 1997an. Merezi du bizkaiera jaso aberatsean egindako sermoi horren zenbait pasarte irakurtzea, ohiko latinezko hasieratxoa barne:

---

<sup>1</sup> Ikus nire txostena: «Proyecto de Academia Bascongada. 1886ko Euskal Jaien emaitza eta beste». ANTOINE d'ABBADIE 1897-1997, *Congrés International. Ezohiko Kongresua*, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia. Donostia-Bilbo 1998, 655-661. orr.

«Tu autem vocaberis, quoesita civitas et non derelicta. Zuri deituco deutzube gurarizco Uri, guztiz ornidu ta apainduba, ta ez, bas-tertuba. Uri onetako Aguintaritzea daukazuben Jaun prestubac... ¿cer gauzaq egoguijagoric Batzacuntza guztijaren aurrian esuqer aundijac emotia baño On Antonio Abbadie Jaun azcarrari, bere mesedia dan esquero, solas, edo Jai-aldin Euzquerazco onen Asmatzallea?...». «Ah, ero andijac, Bizcaitar asko, behintsat, urcatuko lituquee ascoc euren buruac Poruco legueric chicarrena galdu edeñ; barris, anchinagotic jatorcun Eusqueria ¿galdu dedilla ordu onian gura dozube? Ez Bizcaitarrac, eta Aita Cardaberaz jaquintzubac esan eban guisará, esan biar dogu geuc bere: EUZQUERAC BURUA JASOTIA, JAUNGOICUAC BERAC GURA DAU» Esaldi horretan, argi uzten du, bera foruzale porrokatua izan arren, hizkuntza, garrantzitsuagoa dela. Aipamen ugari ere egiten ditu: Abbadie (aurren nonbait) «ondo etorriac eguiteco on Antonio Abbadie jaunari...») Larramendi, Astarloa (askotan), Kardaberaz, Mogel neba-arrebak, Arrese Beitia, Aita Uriarte, Frai Juan Zumarragako... «Nic onetaraco, au da: geure berbetiac irauñ daijan bere garbitasun gustijan erregu Bat eguin biar deutzet Aguintaritzia dauqueen Jaun gustijai, batez bere Meriomendecuai, eta da: Catalanac eguin daben guisará, eta baita bere NAPAR, ETA Guipuzcoatarrac Donoztian dauqueen Batzarren bidez: erregutú escola Maizubaren Aguintaric naguci edo Buru danari, jaquituriya bardiñian beintsat, bialdu daizala Euscal errirá escola Maisu Euscaldunac».

Zumaiako 1900 urteko Euskal Jaietan ere egin zuen sermoi nagusia. Honela dago argitaratua:

Zumaya-ko Euskal Festetan Aita Daniel Baertel-ek Gipuzkoako Diputazio Txit Goituaren aurrean egindako SERMOYA, 1900-eko Agorraren 23an (Gipuzkoako eskudua erdian eta segidan:) SERMON predicado en la Iglesia de Zumaya durante la solemne misa mayor del día 23 de Septiembre de 1900 por el Rvdo. P. Daniel Baertel ante la Excma. Diputación Porvincial de Guipúzcoa. San Sebastián. Imprenta de la Provincia, 1900

Azkue Bibliotekan dagoen aleaz baliatu naiz eta, benetan, Aita Baartelek, durangarra izan arren, gipuzkera ere ongi menderatzen eta erabiltzen zuela,

esan dezaket. Seguru asko Zarauzko frantziskotarren ikastetxe honek ere izango zuen eragina. Zenbait pasarte dakarzkizuet:

«Gipuzkoako Ekautari Jaunak: Erri ontako agintaritzea daukazu-  
 zuten zaldun prestu, eta nere anai maiteak. Nere Jaun eta Jabeari  
 emango diot nik detan onore guztia, bigarren aldiz itz egiten detalako  
 Euskal Festetan...» «... Poztu gaitezaen bada Euskaldunak, poztu bai  
 Gipuzkoarrak eta On Domingo Agirrek Zestuan eta Aita Serapio  
 Mendia Zumarragan esan zituzena esan bear dizutet nik gaur, Zuma-  
 yako erri polit eta chukun ontan, .... gorde dezagula leialkiro gure  
 izkuntz pare gabe au, eta esan behar diogula gure Ama maite, bizikor  
 gaiñ gaiñeko Euskerari...» Euskal probintzi maitati oietanirakaslea  
 aurkitzen dala erpiñtasun edo goieran... gaurko eguneko lege berrien  
 bidez eta oiek zuzentzeko badakit lanik asko egiten dutela Euskal  
 erriko Ekautari jaunak, eta beragatik esker andiak ematen dizkatet  
 Euskaldun on guzien izenean. Aurreko irakaslea, gu bezela lutarte  
 oietan bizi gerantzat, bai maisubak izendatzeko, eta baita ere esko-  
 letan gorde bear dan irakaslerako Probintzietako Ekautariak egin  
 behar duten lanik andiena, euskeraz egiten dan errietako maisubak,  
 euskeraz jakin beharko lukete eta euskeraz erakutsi behar litzake eta  
 eskola guzietan behartu bear lirake maisubak...» «Fuerdoak euren  
 oñean irozotzeko kirtenik irmeena da eta baita euskarririk sendoena  
 Euskerazko izkuntzari ondo ondo kontu egitea: zergatik, elkarri laz-  
 tandurik, arras itsachiak aurkitzen dira...» «Euskera il ezkeru,  
 Fueruak ez dira biziko, bañan Euskera bizi bada, Fuerdoak piztuko  
 dira. Fuerdoak nai dituanak, maite izan behar du Euskera eta Euskal-  
 dunai Euskeraz bear die itz egin, eta adierazi berai dagozkioten gauza  
 guzti guztiak...»

1886ko Durangoko Euskal Festetatik 1900eko Zumaiaokora Aita Baerte-  
 lek ortografia ere aldatzen duela bistan da,  $c$  edo  $q$ -ren orde  $k$  edo  $z$ ; *guero*-  
 ren orde, *gero*; agertzen baitira. Foruzale porrokatu izaten jarraitzen du,  
 baina, euskaltzale sutsu gehiago. Uste dut, bi sermoi ia ezezagun biok, berriz  
 argitaratzea mereziko luketela. Poztuko nintzateke, bestalde, filologo trebe  
 batek, testu bion azterketa zehatz bat egingo balu, bai hitzen aldetik,  
 erakunde terminologiaz, batez ere, fraseologiaz eta bestez. Seguru ondorio  
 interesgarriak aterako lituzkeela.

Irazabalek dakarren beste pasarte bat ere interesgarria da:

Sermoi hau bakarrik ez zen izan bere lotura euskara eta hizkuntza honen kultur munduarekin. Adibidez, Xabier Altzibar ikerlariak dioenez bera izango zen seguru aski Zarauzko komentuan erdi ahazturik zegoen Mogelen *Peru Arbarkaren* eskuizkribua ekarri zuena 1881 urtean Durangora, berriz ere bere jaioterrira, eta Artekaleko Eleizalderen moldiztegian finkatuz inprimategiko hizkietan nobela interesgarri horren zabalkundea bultzatu zuen pertsonai anonimoa.

Nik baino hobeto jakingo duzue frantziskotarrok, baina, gainontzekoon jakinerako, ordena barruan ere beste zeregin eta kargu batzuk ere izan zituen, hala nola, 1879an Arantzazun musika maisu bezala, Erriberriko komentuan guardiano agertzen da, Bermeokoan eta hemen bikario eta probintziako definidore.

1922.ko abenduaren 29an hil zen komentu honetan. Goizean meza eman ondoren txarto sentitu omen zen eta bronkoneumonia batekin zendu.

Komentu honen 400. urteurren ospakizun honetan, hasieran aipatu arrazoiengatik, durangar eta komentu honetako baten ohoretan izan bitez lerro hauek, hots, Frai Daniel Baertel Miotaren omenez.



# Agirre Asteasukoaren *Eracusaldiac*: Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan

OZAETA ELORTZA, Miren Arantzazu  
Goiko argitalpenaren egilea

Zarauzko Frantsizkotarren komentua, 2010-XII-17

Agur t'erdi, euskaltzain jaun-andreok, mahaikideok, entzule etorri zaren guztiok: eguerdi on dezazuela denok. Ohore handia da gaur hemen egotea. Eskerrik asko Euskaltzaindiari eta Mondragon Unibertsitateari eman didaten berme eta laguntzagatik. Eskerrik asko, orobat, tesi zuzendari Luis Mari Larringani ere.

Oso toki aproposa dugu Zarauzko frantziskotarren komentu hau Agirre Asteasukoaz hitz egiteko. Askok estimatu izan zituen Zarauzko frantziskotarrak euskarazko predikazioan egindako lanagatik, eta, esker on horren seinala da Agirrek bere liburutegia (eta liburutegi oso nabarmena zeukan bere sasoirako, oso gizon irakurria eta jantzia baitzen), bere testamentuan idatzita utzi zuen moduan, Zarauzko frantziskotarrei utzi ziela. Hona etorri nintzen ni ere duela urte batzuk, aita Berazarengana, Agirreraren *Eracusaldiac* lehen edizioa (1850 urtekoa) ikustera eta eskuztatzerara.

Zergatik Agirre? Corpusaren aukeraketaren auzia dago tesi bat egitean. *Eracusaldiac* aukeratu nuen, trilogia bat, sermoiez osatua, sermoi doktrinalez zehazki, 1.500 orrialde inguru, 27 urtean zehar idatziak Fidel Altunaren datazioaren arabera, 1795 Konbentzio Gerran eta Agirre hil urren egon arte idatzia. Erakar-garritasun handia izan dut Agirreraren prosarekiko, asko gustatzen zitzaidan, eta oraindik ere gustatzen zait. Eta Umberto Eco esango zukeen bezala, tesia egiten duzunean idazle bati buruz, subjektua zure bizitzan instalatzen da.

AGIRRE ASTEASUKOAREN

*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN

*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN



AGIRRE ASTEASUKOAREN

*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN

*ERACUSALDIAC:*

SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

**iker - 24**

**ARANTZA OZAETA ELORTZA**

**AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC.*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN  
ARGITAN**

**IKER-24**

EUSKALTZAINDIA  
2010

Gaurko egitekoa da Agirre Asteasukoaren *Eracusaldia* trilogiaren inguruko ikerketa lana aurkeztea. Eta lanaren abiaburuei hitz erdi esan gabe, ezin pasatu. Agirrerri egin nion lehen hurbilketa nire aurretik beste batzuek jarraitu zuten berbera izan zen: hurbilketa edo begirada erretorikoa. Erretorikako estudio gisa planteatu nuen, testu klasikoa eta erretorika klasikoaren arteko lotura justifikatua eta berezkoa zelakoan.

Baina perspektiba erretorikoan ezaugarritzea ezin liteke egin analisi metodo espezifiko baten arabera, baizik eta maila elokutiboan, tropo eta figurak kontuan hartuz; eta hara non, Agirre Asteasukoaren lana ez da aberatsa tropo eta figuretan. Nahiz eta Agirrerren testuak aberatsak eta konplexuak diren. Eta hor inflexio une bat izan nuen, eta gauzak birbideratu egin nituen.

Hasita nengoen beste irakurketa batzuk egiten: Bajtin, Bronckart, Voloshinov... Eta interakzionismo sozio-diskurtsiboa aurkitu nituen. Marko honen arabera ikerlaria ezin makur edo muga liteke autorea bere baitan eta huts-hutsean aztertzea, ezta honen intentzio-asmoak aztertzea ere... baizik eta obra eraman behar da inskribatzen den dimentsio sozial eta historikoetara.

Diskurtso terminotan pentsatu behar da obra horrela: eta diskurtso terminotan pentsatzeak eskatzen du albo batera uztea fantasma bat, hau da, egilea sortzaile indibidual gisa kontsideratzeko fantasma, edota estrukturalismotik aldentzea, hots, obra bere baitan kontsideratzetik, bere autonomiatik.

Gure ikuspuntutik, diskurtso ikuspuntutik, obra bat aztertzea ezer baino lehen obra hori sortzen den testuinguruan kokatzea da, obra hori ebaluatzen den eta gestionatzen den espazioan kokatzea, hain zuzen. Esatearen baldintzek zeharkatzen dute esaten dena, eta esaten denak aldi berean garamatza bere enuntziazio baldintzetara.

Horrela bada, kokatu gara hizkuntzaren ikuspegi interaktibo baten, Bronckartek esango lukeen moduan, aktibitate sozialaren eta hizkuntzaren arteko harremanetan. Areago, Voloshinoven arabera, hizkuntzazko prozesuak, «goitik beherako» (descendente) norabidean kokatzen dira. Eta ikuspegi hau, ikusten duzueenez, oso egokia gertatzen zaigu sermoia ezaugarritzeko.

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

© Arantza Ozaeta Elortza  
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.  
© Mondragon Unibertsitatea

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-63-8

Lege-gordailua: NA-2847-2010

Gure izarra, akuilua eta obsesioa (sermoia ere oso testu obsesiboa izanik), sermoia praktika diskurtsibo gisa ezaugarritzea izan da. Sermoiaren azterketa lau modulu edo kapitulutan egin dugu. Eta azterketa horiek dira osotasunaren alderdi partzialak.

Batetik, aztertu dugu sermoia egitura.

Bestetik, aztertu dugu zein den sermoia helburua; Austinen galderari jarraiki «hitz egitea gauzak egitea bada», zer gauza egitea da sermoia egitea? Sermoilaria zertarako ateratzen den pulpitura aztertu dugu, pragmatikaren ikuspuntutik. Hala, sermoia, ezer baino gehiago, hunkitu eta emozionatu nahi duen diskurtsioa da, eta noski, badu erregulaziotik eta kontu hartzetik, eta badu irakaspenetik ere (cfr. titulua, Eracusaldia). Bada tartean, sermoiak entzulearekiko ezartzen duen harreman mota bat, giro bat. Sermoia, zentzu horretan, hitz-hartzen magiko-edo da, eta ibilbide narratiboan zehar kristauak egiten du lurretik zeruainoko bidea.

Aztertu dugu, era berean, sermoian funtsezko den alderdia: polifonia, sermoia zeharkatzen duten ahotsak. Hemen aztertzen dira alderdi interaktibo eta interpersonalak. Altxorra kapitulu honetan dago, sermoia bihotza ahotsak dira, zer ahots ekartzen diren. Pertsona izen-ordainak eta aipugintza aztertu ditugu, estilo zuzena eta zehar estiloa.

Sermoiak ahots eremuak bereizten ditu argi eta garbi eta hierarkiak ezartzen dira, asoziazio eta disoziazio fenomenoak. Guk A B eta Ch barrutia gisa izendatu ditugu, eta barruti bakoitza nola ekartzen den testura harrigarriki desberdina da.

Ematen du badagoela sermoilariarengan arreta bat esataria identifikatzeko, esatariaren arabera egiteko formulen distribuzioa, eta kontuz ari dela idazlea ez nahasteko.

Noski, ahotsen ekartze hori ez da zorizkoa, ez da egile indibidualak egiten duen hautua ere: baizik eta «neurri» sozio-diskurtsiboa. Diskurtsioa antolatzeko modu bat da, tresna kognitibo bat, oso errentagarria gertatzen dena edukia memoriari iltzatzeko eta memoriari edukia.

Eta A, B eta C barruti horiek dira sermoia elementu traktoreak. Aipugintza benetako sinbolo da sermoigintzan; ez da jakintza plantak egiteko, baizik eta sinbolo.

Sermoiak da ziurrenik historian dagoen genero bakarra, eta historiako okasio bakarra, zeinetan zita arazo testual inportanteena den.

Sermoiak, azken buruan, aipuen inguruan mamitzen den mintza-praktika baita.

Sermoiak bapote makinak bezala funtzionatzen du, iturri hotza (kristauaren ahotsa) eta iturri beroa (Biblia, patristika, Elizaren doktoreak, kontzilioak...) behar ditu. Baina asozioazio eta konfigurazioak alde aurretik determinaturik edo konsagratuak daude, historian zehar mamituak, eta autoren banakokoaren xede-asmoetarik at.

Azken azterketa erretorikakoa izan da, eta ahalegin txiki bat dago sensibilen erretorika edo emozioen erretorika hori ezaugarritzeko.

Kapitulu bakoitza beregaina da, eta sermoiaren deskripzioa egiten da. Bakoitzak dauka marko teorikoa, analisia, ondorioak. Eta alde horretatik, liburua irakur daiteke kapituluka edo atalka, edo osotasunean. Beharbada, atal bakoitzak bere publiko berezia dauka. Eta dena irakurtzen duenak, topatuko du intentzio konbergente bat, bata besteari begira egoteko intentzio bat, elkar osagarritasun bat. Horren alde aritu gara, behintzat.

Zer esan ondorioetan? Liburu honetan, Agirreraren testuei berbisita egiten zaie eta berrirakurketa bat proposatzen. Eta beharbada, irekitzen da bide bat beste idazle klasiko batzuk ere aztertzeke, izan ere, lan honetan erabili diren hainbat hurbilbidek: zitazioak, pragmatikak edo erretorika enuntziatiboak berak, indar ezaugarritzaile handia dute, eta diskurtsoak ezaugarritzeko potentziala. Baita literatur obrarenak ere. Eta halatan, Mitxelenak berak ere iradokitzen zuenez, uztar liteke estudioetan literaturarenganako isuria eta hizkuntzalaritzako tresneria.

Eskerrik asko berriz ere eta atea irekita dago galderentzako.